

Entzun eta konpainia beroa



Joxe Mari Landak (Oiartzun, 1963), Osasun Pastoraltzaren arduraduna, ezin du normaltasunez bere ohiko lana egin. Ezin du buru-buruan egon baina konturatu da gaixoengana eta premia dutenengana hurbiltzeko beste modu batzuk ere egon badaudela.

Nola bizi du Osasun Pastoraltzak koronabirusaren afera?

Kezkaturik, izan ere, adinagatik, Pastoraleko kide gehienak arriskugarriak baitira. Tamalez, ezin dute gaixoa zuzenean artatu eta bere ondoan egon, baina lan eta arreta modu berrietan pentsatzen ari gara.

Osasun Pastoraltzako boluntarioen lana laguntzea da.

Bai. Boluntarioak etxean zaintzen egon arren, fronte guztiak oso aktibo daude. Zuzeneko harremanak, bisitak, etab. telefono-deiek ordezkatu dituzte. Teknologiari esker, otoitz egiten eta laguntzen jarraitzen dugu.

Gaixo dagoen pertsonak pozez eta ilusioz hartzen du gertutasuna. Hunkitu egiten da. Norbaitek deitu eta jakinmina azaltzea eskertzen du. Egunean, unetxo bat, norbaitekin hitz egiteak asko animatzen du.

Gaixo batek laguntza behar duenean, etab., osasun-langileak –erizainak, medikuak...– zurekin harremanetan jartzen dira.

Hala da. Nire telefono-zenbakia ematen diete, eskaerak entzun eta hitz egiten dugu.

Otoitza eta laguntza espirituala oso lagungarriak zaie.

Ospitalean, egun arrunt batean, zer lan egiten zenuen?

Erligio Zerbitzuan, gaixoei eta haien senideei laguntzen diegu. Batez ere, entzute eta akonpainamendu handia eskaintzen dugu: Sakramentuak...

Pertsona eta adin guztietako pertsonak eskatzen dute

zerbitzua. Norbaitek entzun diezaien premia dute, baita biografiak kontatu, bizi dituzten emozioak eta sentimenduak adierazteko beharra ere.

Osasun Pastoraltzaren lana anitza da.

Koktel oso zabala da: psikologia, atal espiritual eta erlijioso... Gaixoarekin eta haren senideekin haien beharren arabera egiten dugu lan: beldurrak, kezkak... Euren ondoan eseri, eta badute norekin hitz egin.

Ze mezu helaraztea gustatuko litzaizuke Osasun Pastoraltzatik?

Alde batetik, besteak zaintzeko, norberak bere burua zaindu behar duela. Eta, batez ere, pandemian zehar maite duen norbait galdu duten senitartekoei laguntzeko prestatu behar dugula. Ezin izan dute modurik onenean agur esan. Jende askok hurbiltasuna beharko du konfinamendua amaitzen denean.

Osasun Pastoralta,

noski, han izango da une horri aurre egiteko. Dena amaitzen denean, doluko akonpainamendua behar bezala landu beharko dugu ospakizun eta erritu desberdinekin.

Nola uste duzu izango dela “Biharamuna”?

Egia da gizakiok harri berarekin estropezu egiteko joera dugu la, baina egoera honek zentratzen eta pertsonen balio handiagoa ematen lagunduko digula ustedut. Ea balioak etab. indartuta ateratzen diren, gu zaindu, eta beste pertsonak zaintzeko.

